

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure enpresa aurrera eramateko egingo ditugun ekintza desberdinen definizioa da.

Gure kasuan, egunero hurrekin burutuko ditugun ekintzak izango dira(0-12). Hauen artean, elkarren artean harreman estuagoak sustatzeko eta bizi diren egoera gogorak alde batera uzteko, jolasak, antzerkiak, dantzak, abestiak etab burutuko ditugu.



Errefuxiatuak dauden kanpamentura heltzen garetik eguna amaitu arte hurrekin planifikatutako ekintzak hauek izango dira:

- **Goizean:**

-Ezagutza jolasak: Haurren eta gure arteko ezagutza egingo dugu jolasen bitartez.

-Kultur jolasak: Kultura desberdinak ezagutzeko jolasak burutuko ditugu, bakoitzak bere herri jolas azalduz.



-Margo lanak: Bakoitzak bere sentimenduak orri baten margozten adieraztea.

- **Arratsaldean:**

-Psikologia tailerra: Psikologian aditua den pertsona bat etorriko da terapia saioak eskaintzera eta tailer hau batzuk taldeka eta banaka burutuko dituzte. Taldeko saioetan, goizean egindako marrazkiak analizatuko dituzte.

-Antzerki saioa: Taldekatzeak egin, talde bakoitzari gai bat emango diegu eta gaiaren arabera antzerki bat prestatuko dute. Hau amaitzerakoan antzerki guztiak denok denon aurrean ikusiko ditugu.



- **Gauean:**



-Gaubela: Egunean zehar egindako ekintzen hausnarketa egingo dugu denon artean eta bakoitzak bere iritzia emateko aukera izango du. Herri bakoitzean dauden instrumentuak jo (dakienak) kultura desberdinetako musikaz gozatzeko, gure kasuan Haizeak trikia eta panderoa joko du

## **LOKALEAN, ENPRESA MODUAN:**

Gure lanaren onurako, lokalean lanean aritu behar gara dena funtziona dezan, besteen artean:

- Astean zehar egun zehatz bat edukiko dugu jendeak eman nahi duen laguntza usteko: arropa, mantak, zakuak, konpresak, janaria..
- Hilean behin boluntarioekin elkartu: ekintzak planifikatzeko, iritsiak konpartitzeko, informazioa helarazteko...
- Web gunea eguneratu.

